

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresako funtsezko jarduera arazoak konpontzea da, bezeroei bizilekua eskeiniz eta beste batzuei etxebizitzaren errendimendu ekonomikoa emanaz.

- Lokal bat bilatu leku estrategiko batean, jendea erakartzeko. Gran Via 19 kalean kokatuta dago gure bulegoa. Alokaturako ditugun etxeak Bilbo erdialdean daude.
- Erreformatzak egin ahal izateko hornitzaileak bilatu beharko ditugu. Inmobiliaria batekin aliantza bat egingo dugu, horri esker erreformatzak merkeagoak izango dira.
- Beste enpresa batzuekin aliantzak sortu, adibidez IKEA, altzairuak errazago eta merkeago lortzeko (edo beste inmobiliaria batzuekin).
- Lehengaiak erostea dator ondoren; dena prestatuta uztea, bezeroa pozik egon dadin. Dena txukun utzi beharko genuke.
- Amaitzeko, langile espezializatu batzuk bilatu beharko genituzke: bezeroen arretarako, erreformatzeko... Aliantza egingo dugun inmobiliaria arduratuko da etxeen erreformatzak.



Banaketa kanala ondo antolatuta izateko bulego fisiko bat beharko dugu Bilbon, eta erreformatzak egiterakoan hornikuntzak ekarri eta eramateko ibilgailuak alokatu beharko ditugu. Webgune bat egin dezakegu ere bai, alokatuko ditugun logelak bezeroek ikusi ahal izateko.